

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Kontxi Aldalur Arrieta

*Donostia,
Gipuzkoa
(1942)*

Aurkibidea



Biografia



Pasai San Pedron jaio zen, baina Donostian bizi da bost urte zituenetik. Aita, marinela bera, gazte hil zen, eta izebaren etxera joan ziren bizitzera, amarekin. Izebak Eskulanen Etxea denda zeukan Elkano kalean (1903. urtetik), eta hantxe egin zuten lana beraiek ere. Eskola txikira Etxague Jenerala kalera joan zen Kontxi, eta gero moja teresiarrengana, Frantzia pasealekuan. Dena erdaraz ikasi zuen. Izebak, baina, ez zien uzten etxean erdaraz egiten. Euskaltzalea zen oso. Frantziako ikastetxe batean ere egon ziren ahizpa eta biak, frantsesa ikasten. 18 urterekin hasi zen dendan lanean. Han egoten da orain ere.

Zintak

DON-043

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-26
- **Iraupena:** 34 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Pasai San Pedrotik Donostiara bizitzera, umetan

- **Erref:** DON-043/002
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:00:23. **Bukatu:** 00:03:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Pasai San Pedron jaioa, bost urterekin Donostiara joan zen bizitzera. Aita gazte hil zen, eta amaren izeba baten etxera joan ziren bizitzera. Elkano kalera lehenengo eta Grosera gero. Labore denda zuen izebak, 1903an irekia, eta negozioarekin jarraitu dute.

2. Eskulanen Etxea denda nolakoa zen

- **Erref:** DON-043/003
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:03:28. **Bukatu:** 00:06:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Bi izebak tailerra jarri zuten, eskulanak erakusteko, eta labore denda jarri zuten gero. Kanporako lanak egiten zituzten (10 bat emakume zituzten josten), eta atzeko aldean ikastaroak antolatzen zituzten, bordatua erakusteko. Denda txikia zen (bi saltzaile). Bezero denak emakumeak. Dendaren ardura amak hartu zuen, gero.

3. Ikasketak, teresiarren ikastetxean

- **Erref:** DON-043/004
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 00:06:27. **Bukatu:** 00:10:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

General Etxague kaleko eskolara joan zen, eta gero teresiarren kolegiara, dena erdaraz. Uniformea zuten; hasieran beltza, eta gero berdea. "Las vespas" deitzen zieten. Diziplina zorrotza zen, eta dena bekatu. Astero konfesatzen ziren.

4. Frantziara frantsesa ikastera

- **Erref:** DON-043/005
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:10:44. **Bukatu:** 00:13:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Frantziara joan ziren frantsesa ikastera, moja ikastetxe batera. Aldaketa oso handia zen. Jantzeko, sexuaz hitz egiteko... askatasuna. Amak eta bere ahizpek frantses mojekin ikasi zuen, Pasai Antxon; etxean euskaraz eta frantsesez otoitz egiten zuten.

5. Izebaren etxean gaztelaniarik ez

- **Erref:** DON-043/007

- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:13:43. **Bukatu:** 00:15:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Bere izeba euskaltzalea zen, eta haren senarra are gehiago. Izebaren etxean ezin zen gaztelaniaz hitz egin, ez zien uzten. Esaten zuen etorriko zela garai bat euskaraz ikasteagatik ordainduko zutena. Ez zioten sinesten.</p>

Transkripzioa

- Eta, izeba hori, denda iriki zuna, oso euskaltzalea zan, ez?
- Oso euskaltzalea, bai. Batez ere ezkondu zan gizon batekin hura zan oso-oso-oso euskalduna ta, gaiñea, inplikatua. Nik uste det Sabino Aranakin ezauna zan. Ni ari naiz iten oso atzera, e? Zeatikan hoiiek zian, nahiko adiñekuak zian hoiiek guziak. Nere aitona edadekin ezkondu zan eta nere amona gazteagoa zan. Eta, orduan, haiek gelditu zian oso adiñekoak. Eta gizon hura zan oso-oso-oso... oso euskalduna, bihotzez, buruz, politikaz... dana, dana. Sartuta zegon, bai.
- Eta zuk ez zendun ezagutuko.
- Ez, hura ez nuen ezautu.
- Lehen esan dezu, hogeit urte zenitunean zuk...
- Nere izeba horrek... hil zan larogeita... larogeita hamarrekin hil zan. Eta bea alarguna zan gizonangatik. Harrengatik. Eta hura zan oso-oso-oso. Gehien... zegatikan nere... hamen familia, bestela, nere aitona-ta ez zan oso... pues nola esaten zan... “un poco prudencia”, “todo con prudencia”, baiño bestia ez.
- Bestia euskeraz ta euskeraz.
- Euskeraz ta, gaiñea, oso-oso-oso...
- Eta etxian, orduan, ze esaten zun?
- Ba, euskeraz egin bihar zala. Osea, izeba honek esan zuen: “Etxe hontan euskeraz”. Eta gero, frantsesa ikasi genuenean, esaten zuen: “Erdera, mesedez, kanpoan. Hori [ordoi] besterik ez da. Ordoia besteik ez da. Eta, etxe hontan, nahi badezute, frantsesez. Nik ez det ulertuko, baiño nahi badezute frantsesez. Bestela, euskeraz”. Ez ziguten uzten.
- Eta hori gogorra izango zan zuentzat.
- Oso gogorra. Oso gogorra. Gaiñez, “Esta vieja —esaten [nun],—esta vieja”. Gero konturatzen zea. Eta, gaiñea, esaten zigun gauz bat, gero nik askotan esan det hemen: “Pentsa zazute pixka bat, e? Baiñon etorriko da denbora bat ordaindu in biharko dezutela euskeraz ikasteko”. Hori esaten zun... baiñon egunero!
- Eta zuek siñistu ez.
- Nola siñistuko genun?

6. Euskararen erabilera dendan

- **Erref:** DON-043/009
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:16:25. **Bukatu:** 00:18:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Dendan euskararen erabilera nolako zen azaltzen du. Euskaldunek ez zuten euskara erabiltzen normalean. Orain ere jakin arren askok ez dute erabiltzen.</p>

Transkripzioa

- Eta hemen, dendan, etortzen zian bezeruak-eta euskeraz egiten zuten?
- Nik uste det... bai, nik uste det /ustet/ izango zitula bere adiñekuak. Zegatikan nik uste det euskera galdu dala, nola esaten zuten beak, gerratik honutz. Zergatik izango balitzake gure generaziyua o pixkat zaharraguak ere bai. Hor galdu da. Zergatik nere aita... nere aitak ez zekiye euskeraz. Aita euskalduna zuen, euskaldun... "parlante"; ama ez. Eta, orduan, ya hor galdu in zan. Eta nik uste det hor galdu dala. Baiñon bezeruak, [atzeko] bezero hoiek bazekiten, danak zekiten euskeraz.
- Gaiñera, bazeuden batzuk baserrietatik-eta etorritakoak...
- A bai, hoiek, hoiek ere...
- ... ez zutenak nahi.
- Hoiek ez. "Baiñon euskeraz hitz egin, hemen danak euskeraz dakigu" eta ezetz haiek, "Ikasi in bihar deu". Ta, badakizu, erderaz. Gaixki... Oain´e gertatzen da batzutan, e?
- Kapitalian erderaz, ez?
- Bai, bai. Gaiñea, Donostia nik uste det da kapitala "la más erdaldun". Hala iruditzen zait nei.
- Bai?
- Nik uste det baietz.
- Zuk sentsazio hori daukazu?
- Bai. Guk... Oain nere alabak daude dendan, eta esaten dute /esateute/, hasten bazea... jende asko dago dendan, e? Eta hasten bazea euskeraz, danak euskeraz iten dutela /iteutela/. Osea, konturatzen zea danak dakitela! Ta zegatik ez dute egiten?
- Eta hori lehen ere gertatzen zan?
- Lehen ez dakit. Lehen´e danetatik izan zan.
- Bildurra bazeon euskaraz hitz egiteko?
- Euskaldunak ez zuten iten. Eta hori da... Eta nola erdaldun asko zegon, ba... orduan...
- Eta zuek ere ez zenuten iten dendan-eta?
- Bai, biharbada bai, baiñon gutxi. Dendan gutxi.

7. Dendari eta neskame euskaldun bila

- **Erref:** DON-043/010
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:18:04. **Bukatu:** 00:19:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

18 bat urterekin hasi zen dendan lanean. Adineko bi saltzaile zituzten, euskaldunak. Etxean ere neskame euskaldunak izaten zituzten; azkena Cazereskua izan zen, eta izeba ez zegoen konforme.

8. Denbora libre gutxi, beti dendan

- **Erref:** DON-043/012
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:20:27. **Bukatu:** 00:22:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Ez ziren Hernanira, Errenteriara... joaten erromerietara. Konstituzio plazan txistua izaten zen. Santo Tomas eguneko antzezlan. Denda zabalik izaten zuten Santo Tomas egunean, kanpoko jende asko joaten zitzaielako. Larunbatetan ere denda egun osoz zabaltzen zuten. Umea izandakoan ere, 15 egunera dendan lanean ziren berriz.

9. Zinemara eta amonaren etxera

- **Erref:** DON-043/013
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:22:48. **Bukatu:** 00:24:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Zinemara joaten ziren. Areto asko zeuden: Kursaal, Novedades, Trueba, Victoria Eugenia... Urbanitak ziren; orduan ez zitzaizkien herri kutsuko gauzak gustatzen, orain bai. Igandetan Pasaiara joaten ziren, amonaren etxera.

10. Elkano kaleko dendak, jada desagertuak

- **Erref:** DON-043/016
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:25:22. **Bukatu:** 00:29:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Elkano kaleko dendak aipatzen ditu. New England sastreria, Picadilly arropa denda, Jornet opari denda... Bitxidenda ere bazegoen, eta bi jostailu denda handi, zoragarriak. Mertzeria frantses bat ere bazegoen, ezkontzatarako kapelak-eta saltzen zituena.

11. Dendako produktuen bilakaera eta gaur egungo egoera

- **Erref:** DON-043/017
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:29:29. **Bukatu:** 00:33:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Dendako produktuak aldatzen joan dira. Modak bueltatu egiten dira; baikinak eta ehoziri-lanak, adibidez. Horri eskerrak irau du hainbeste dendak. Gipuzkoako toki askotatik joaten zaizkie bezeroak. Orain euskara asko erabiltzen dute dendan, eta jendeak lasai hitz egiten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com